

Euskararen Normalkuntza Irakaskuntzan



4

AHOLKU BILDUMA

© Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioa
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritza, Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington Dukea 2. Vitoria-Gasteiz
Diseinua: Sormen Creativos
Inprimatzailea: Gráficas Santamaría, S.A.
Lege gordailua: VI-633/92
ISBN: 84-457-0178-9
2.000 ale
Argitaratze data: 1992ko urria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA

SECRETARÍA DE LA PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA

Euskararen Normalkuntza Irakaskuntzan

Vitoria-Gasteiz, 1992ko urria



GOBIERNO DE EUSKADI / GOVERNMENT OF THE BASQUE COUNTRY
EUSKADIKO LEHENDAKARITZA / GOVERNMENT OF THE BASQUE COUNTRY

Euskararen Normalakuntza Euskararen Normalakuntza

OHARRA: Euskararen Aholku Batzordearen Osoko Bilkurak
1991ko ekainaren 7an onartutako lana

AURKIBIDEA

AURKEZPEN GISA	7
1. ATARIKOA	9
1.1. Herritarren eskubidea euskara ezagutzeko eta erabiltzeko	9
1.2. Eskola eta hizkuntza normalkuntza	9
1.3. Euskarazko irakaskuntza eta integrazioa	9
1.4. Irakaskuntza gizartean eta ikaslearen baitan errotua	10
1.5. Bertako bi hizkuntzak denok jakitea: integrazio biderik eraginkorrena	10
1.6. Elebitasunetik eleaniztasunerantz	10
1.7. Euskara eta euskal kultura irakaskuntza elebidunaren ardatz nagusiak	10
1.8. Eskola elebiduna eta kalitatezko irakaskuntza	11
1.9. Hizkuntza eta hezkuntza	11
2. ORAIN ARTEKO IBILBIDEA	11
2.1. Irakasteredu elebidunen iturburua	11
2.2. Egungo irakasteredu elebidunak	12
2.3. Legeak irakaskuntzari jarri dizkion hizkuntza helburuak	12
2.4. B eredurako baldintzak arautzen dituen 1986ko agindua	12
2.5. EIFE ebaluazioaren emaitzak	13
2.6. Azken urteotako arazoak	13

3. JORRATUTAKO IBILBIDEAREN ONDORIOAK	14
3.1. Irakastereduei buruzko balorazioa	14
3.2. Irakastereduen jarraipena	14
3.3. Euskara: helburu amankomuna nahitaezko ikastaldian	14
3.4. Eskolako hizkuntza normalkuntza eta gelaz kanpoko plangintza	14
3.5. Irakastereduak eta irakasleen hizkuntza eskakizunak	15
3.6. D ereduko irakasleen hizkuntza eskakizuna	15
3.7. Irakastereduen arteko igarobidea	15
3.8. Euskaraz ikasteko eskubidea ziurtatu beharra	15
4. AUTONOMIA ETA PLANGINTZA	16
4.1. Autonomia eta eskola eredia	16
4.2. Autonomia eta parte hartzea	16
4.3. Hezkuntza proiektu ezberdinak aukeratzeko eskubidea	16
4.4. Autonomia eta hezkuntza proiektua	16
4.5. Autonomia eta ekin ahal izatea	17
4.6. Ikastetxea eta eskualdekako plangintza	17
4.7. Irakasleen hizkuntza trebakuntza	17
4.8. Autonomia elementu dinamiko gisa	17
4.9. Autonomia eta irakas sistema osoaren plangintza	18
4.10. Euskal eskolaren legea eta autonomia	18
5. ETORKIZUNERAKO BIDEAK	18
5.1. Lehentasunak eta adostasuna legearen testuinguruan	18
5.2. Hizkuntza helburuak	18
5.3. Eskola hezkuntza eta hizkuntza helburuen aurrean	19
5.4. Euskarazko irakaskuntza hobetu beharra, batez ere A eta B ereduetan	19
5.5. Eskola elementu kompensatzailea hizkuntza alorrean	19
5.6. Eskola autonomia eta hizkuntza helburuak betetzea	20

5.7. Eskola hizkuntza normalkuntza prozesuaren eragile	20
5.8. Eskola plangintza eta ingurunekoa	20
5.9. Batua eta euskalkiak	20
5.10. Eraitzen ebaluazioa euskaraz eta gaztelaniaz	21
5.11. Irakaskuntza elebiduna prestigiatu beharra	21
5.12. Irakasleen euskalduntzearen arazoa	21
5.13. Euskararen aldeko proiektuak lagundu eta babesteko beharra	21
5.14. Argitarapen politika	22
5.15. Irakaskuntza pribatua	22
5.16. Unibertsitatea eta ikerketarako erakundeak	22
6. GOMENDIOAK	22

AURKEZPEN GISA

Hamar bat urte badira euskarazko eta euskararen irakaskuntza legeztatu zela. Geroztik hainbat pauso eta ahalegin eman da irakaskuntza elebidunaren arloan. Ereindako haziak fruituak eman ditu dagonekoz eta aurrerantzean ere irakaskuntzaren aldeko lanari eutsi behar zaio euskararen etorkizuna ziurtatuko bada.

Gaurdaino egindako lana handia izanik, gero eta garrantzitsuagoa ikusten da aurrerantzean irabazi beharreko apustua. Testuinguru honetan kokatu behar da Euskararen Aholku Batzordearen azterlan hau.

Abenduaren 15eko 370/1987 Dekretuaren 5. atalak, "euskaingintzan diharduten elkarten langintza koordinatzeko arau gidariak eskaintzea" agintzen dio EABari. Agindu hori beteaz landu da txosten hau, gaurdaino eginikoa kontutan hartuz, egungo arazo nagusiak aztertuz eta aurrera begira jarraitu beharreko erizpideak aurkezten dituelarik. Amaieran hainbat iradokizun zabaltzen du irakaskuntzan zer esana dutenek ezagutu ditzaten.

Gizartearen arazo dira nola euskararen normalkuntza hala irakaskuntza. EABak, berari dagokionean, lan hau eskaintzen die interesatu guztiei lagungarri izan dakien.

1. ATARIKOA

1.1. Herritarren eskubidea euskara ezagutzeko eta erabiltzeko.

Euskal Autonomi Elkartea bere buruaren jabe izan nahi duen gizarte proiektuan kokatzen da. Horrela aitortzen du Autonomi Estatutuaren 1. atalak.

Euskarari irakaskuntzan eman beharreko trataerak gizarte integratu baten nazio proiektuan errotu behar da. Euskarari hizkuntza ofizialaren maila aitortzen zaio Autonomi Estatutuaren 6. atalean. Beronen arabera, herritarrek badute euskara ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Arlo honetan herri ardularitzak duen obligazioari erantzunez, eskubideak segurtatzeko beharrezkoak diren neurriak eta bitartekoak jarri beharko ditu.

1.2. Eskola eta hizkuntza normalkuntza.

Gizartearen bizitza bezala, dinamikoa da irakaskuntza eta hizkuntza normalkuntzaren trataera. Eskola gizarte euskalduntzeko tresnarik tinkoenetarikoa da. Horretarako, ordea, eskolara bertara iritsi behar du hizkuntza normalkuntzaren eraginak.

Euskaraz irakatsiko duen eskolak euskaraz funtzionatuko duen sistema eskatzen du. Programak, jarduna eta harremanak euskaraz bideratzeko egokiera eskaini behar du irakaskuntzak. (Euskal Eskola Publikoaren Lege Zirriborroari Iradokizunak, 2.6. atala).

1.3. Euskarazko irakaskuntza eta integrazioa.

1982ko Euskararen Legeak euskara gizabanakoak elkartean erabat bertakotzeko bidea dela aitortzen du.

Hori horrela, integrazioaren ikuspegitik ere garatu behar da aipatu legearen 15., 16., 17. eta 20. ataletan esaten dena:

- irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz egiteko eskubidea.
- elebitasuna irakaskuntzan arian-arian hedatzea.
- irakastereduak arautzea.
- nahitaezko ikastaldien amaieran bi hizkuntza ofizialak ongi ezagutu ahal izatea.
- irakasleak euskaldun izatera iristeko bideak jartzea.

1.4. Irakaskuntza gizartean eta ikaslearen baitan errotua.

Ezinbestekoa zaio heziketa berari gizarte integratu baten apustua eta, horrexegatik, euskararen normalkuntza.

Gizartean eta bertakoa den ikaslearen baitan errotzen da heziketaren ahalegina. Loturik doaz heziketa, pertsona eta gizartea.

Norberaren nortasunaren arabera garatuz hezitzen da gizatiarra. Integrazioaren alde jotzen duen gizarteak onartu eta babestu egin behar ditu bere herritarren hizkuntzak eta kulturak.

1.5. Bertako bi hizkuntzak denok jakitea: integrazio biderik eraginkorrena.

Gizartearen aldeko eskolak lana egin behar du, hezkuntzaren inguruan, hiritarren gogoak eta erabakiak bateratzen.

Bertako bi hizkuntzak denok jakitea da, Euskararen Legeak aitortu bezala, gizarte integratua eraikitzeko bide egokia. Herritarrei euskararik ez irakastea, esaterako, diskriminatzailea dela esan daiteke.

Edozein eskualde soziolinguistikotan elebidun osoak bideratzeak dirudi, behar diren epe eta laguntza guztiekin, giza mailako integrazio biderik eraginkorrena. Eskolak zeregin honetan inguruko taldeen oinarritzko adostasuna eta konpromezua bildu behar ditu.

1.6. Elebitasunetik eleaniztasunerantz.

Euskal eskolaren lehenetsunezko hizkuntza helburua euskara izanik, era berean beste hizkuntzen ikasketa bultzatu behar da. Egungo hizkuntza politika elebitasunean oinarritzen bada ere, etorkizun hurbilean eleaniztasunean oinarritu behar luke.

1.7. Euskara eta euskal kultura irakaskuntza elebidunaren ardatz nagusiak.

Irakaskuntza elebidunak euskal gizartean errotua behar du eta euskara eta euskal kultura ardatz nagusi bezala onartu behar du.

Euskara ez da komunikazio tresna izatera mugatu behar, ezta lege eskakizun soilera ere. Hizkuntzak berekin duen kultura ekarria, mundu sinbolikoa eta

ikuskeraren bete-betean txertatuko ditu eskolak heziketaren etengabeko sorkuntza ahaleaginean.

1.8. Eskola elebiduna eta kalitatezko irakaskuntza.

Eskola elebidunak, euskara normaltzea ezezik, eskola hobetzea dakar. Beste eskola elebidun askotan bezala gurea ere hobetu egin da zenbait baldintza bete direnean. Ikus, adibidez, EIFE azterketak. Eskola elebiduna egitea, beraz, eskola ona egitea da.

Kalitatea eta elebitasuna eskolaren ardatz bihurtzen direnean beste mejora asko ekartzen ditu; hala nola, eskolaren antolamendu koordinatuagoa, gurasoen parte hartze handiagoa, irakasleen prestakuntza gogo sendoagoa eta ikasmaterial zein programakuntza egokiagoaren etengabeko bilaketa. Bi hizkuntza menperatzeak mesede baino ez dio egiten ikasleari.

1.9 Hizkuntza eta hezkuntza.

Bat datoz hizkuntzak eta hezkuntza. Hizkuntzak lantzen dituen eskolak hezkuntza hobetzen du. Euskarazko irakaskuntza heziketaren zereginean txertatzen da. Hezkuntza proiektuak hizkuntzen trataera egokia eskatzen du.

2. ORAIN ARTEKO IBILBIDEA.

2.1. Irakasteredu elebidunen iturburua.

Autonomi Estatutuaren 6. atalak agindutakoaren ildotik garatu dira Euskararen Legea eta 1983ko Elebitasun Dekretua. Garrantzia haundikoa izan da urtetan zehar ikastolek aurrez eginiko lana. Lege eta dekretu hauek baino lehenagokoa da irakasteredu elebidunen benetako sorrera.

Irakasteredu elebidun horien iturbururik agiriena 1978 inguruan jarri behar litzateke. Hiru eredu ez, lau baizik, taxutu ziren berez lehen ekitaldi hartan: A,B,C eta D ereduak.

Irakasteredu desberdinon tipologia laukoitza definitzerakoan, irakaslego euskaldunari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko asmoaz gain, honako faktore

eta berezitasunak hartu izan dira, besteak beste, kontuan: haurra etxetik euskaldun ala erdaldun den, soziolinguistikazko ingurunea, eskolara hasteko adina, eredu bakoitzarentzat begiz jotako hizkuntza gaitasunerako lorpen mailak, bigarren hizkuntza irakasteko metodologia, orientabide didaktiko orokorrak, irakurketa-idazketa lehenik zein hizkuntzatan landu, eta bi hizkuntzak irakaspide gisa OHOk programazioan zehar nola erabili (Mikel Zalbide, Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua).

2.2. Egungo irakasteredu elebidunak.

Hasierako lau irakasteredu elebidunak egun OHOn ezagutzen ditugun hirura eta Irakaskuntza Ertainetan bira ekarri zituen 1983ko Elebitasun Dekretuak. Ereduon bilakaeraren arrazoia kontsiderazio teorikoetan baino gehiago administratiboetan aurkitu behar litzateke seguruenik.

Halaber, hezkuntza elebidunaren iharduerak eskoletako beharren araberako tokian tokiko egokitzapenak eskatzen ditu kasu bakoitzean, irakastereduen egoeran heterogeneitate handia sortuz.

2.3. Legeak irakaskuntzari jarri dizkion hizkuntza helburuak.

Euskararen Legeak eta 1983ko Elebitasun Dekretuak helburu zehatza jarri diote irakaskuntzari. Baliabideak arautu eta erabaki eragingarriak hartu behar ditu, ikasleak nahitaezko ikastaldiak amaitzerakoan bi hizkuntza ofizialetan aritzeko adinbateko ezagutza praktikoa izan dezan.

Horixe da irakas sistemak, legearen aginduz, bermatu behar duena eta ikuspegi horretatik ebaluatu behar dira irakasteredu elebidunen emaitzak.

2.4. B eredurako baldintzak arautzen dituen 1986ko agindua.

Irakastereduaren garapenean B irakaskuntza ereduak ezartzeko baldintzei buruzko 1986ko agindua izan zen une esanguratsu bezain istilutsua. Agindua honela finkatu zuen euskarazko titulazioa beharrezko zuten irakasleen kopurua B ereduari: EA irakasle guztiak eta OHOn irakasleen erdia.

Agindua testuinguru jakinean sortu zen, irakaskuntza pribatuan irakastereduen araberako dirulaguntzak ematen hasi zenean, alegia. Momentu hartan beharrezkotzat jo zen B eredu ofizialtzat hartzeko gutxienezko baldintzak zehaztea. Horretarako sortu zen agindua. Orduan ez zen aurrakusi neurriak irakaskuntza publikoan izan zezakeen eragin negatiboa, sare publikoa "de facto" askoz ere

egoera hobean bait zegoen. Hala ere, denborak erakutsi du agindua zenbaitetan ikastetxe publikoetan aplikatu dela, eta horrek bere mugak jarri dizkiola B ereduaren hobekuntzari sare publikoan.

2.5. EIFE ebaluazioaren emaitzak.

1986 urtean eman ziren argitara aurreneko aldiz 1983-84 ikasturtean mamitzen joan zen EIFE ebaluazioaren emaitzak. Lan hau irakas sistemaren euskalduntzearen lehen ebaluazioa izan zen. Ebaluazio horretan gorpuzten hasi ziren lehenagotik "uste" mailakoak ziren hainbat intuizio: irakaskuntza elebiduna ez doala ingurunean indartsuena den ama hizkuntzaren kaltetan; A ereduko ikasleek lortzen duten euskara maila eskasa dela; D eredutik ateratzen direla ikasle elebidun orekatuenak; B ereduko ikasleen euskara maila gaztelaniarena baino apalagoa dela; gelaz kanpoko ingurugiroa faktore erabakiorra dela ikasleen hizkuntza gaitasunean, e.a.

2.6. Azken urteotako arazoak.

Euskal Autonomi Elkarteak sortu zenetik irakas sistemaren ahalegin nagusia, hizkuntzari dagokionez, euskarazko irakaskuntza finkatzea eta hedatzea izan da. Azken urteotan, ordea, badirudi irakas sistemaren hizkuntza politikak inertziaz diharduela, norabide zehatzik gabe, eta horizontea ez dela oso garbi ikusten. Horrekin batera, maila desberdinetakoak eta tratamendu berezia eskatuko luketen arazoak ari dira pilatzen.

Arazo guztiak zerrendatzeko asmorik izan gabe, hona hemen horietariko batzu: ikastetxe pribatuen euskalduntzerako finantzabidea, B eta D irakastereduetako ikasleak OHOtik IIEra pasatzerakoan jarraipenik ez izatea, euskararen tratamendua erreforman, selektibitatea, euskal eskola publiko berria legeztatzeak dauden arazoak, irakasleen euskalduntzearen inguruan dagoen problematika guztia (motibazioaren beherakada, baliabideen premia, euskalduntzea eta lan eskubideak kontrajartzea ...), irakaskuntza elebidunaren onarpen soziala sendotzea, e.a. Azpimarratzekoa da irakaskuntzan euskararen normalakuntza ziurtatzeko gizaritearen eta bertako erakundeen erantzun hobe baten beharra.

Guzti honen aurrean, Euskararen Aholku Batzordeak Euskararen Legeak ezarritako norabidea aintzat hartu eta bete beharrekoa dela dio, hots, derrigorrezko ikastaldiaren amaieran ikasleak elebidun izan daitezten iristera jo behar dela. Motibazioa sendotu, ezagutza sustatu eta erabilera areagotzea ezinbestekotzat jotzen ditu legeak agindutako helmugara iristeko. Behar-beharrezkoa izango da, halaber, inertzia-aren arriskuak gaitzitzea eta irakaskuntzan dihardutenen proposamen, iradokizun eta berrikuntza ahaleginak bultzatzea.

3. JORRATUTAKO IBILBIDEAREN ONDORIOAK.

Orain arte egindako ibilbidean badira erantzun egokia eskatzen duten arazoak.

3.1. Irakastereduei buruzko balorazioa.

A irakastereduak ez du betetzen Euskararen Legeak eta Elebitasun Dekretuak ikasleen hizkuntza gaitasunaz agintzen dutena. B ereduari dagokionez, goizegi da antzeko ondorioak edo kontrakoak ateratzeko. Hala eta guztiz ere, denbora eta ahaleginekin batera, bi irakasteredu horien emaitzak, batipat azkenekoak, hobetzea espero da. Era berean, ezin da ahaztu D ereduak ere bere egokitzapenak behar dituela, bai euskara ikasleen ama hizkuntza denean bai bigarren edo inmersio hizkuntza denean.

3.2. Irakastereduen jarraipena.

OHOtik IIEra igarotzean, B eta D irakastereduetako euskarazko irakaskuntza eten egiten da sarritan, eta ordurarteko ahaleginak jarraipenik ezean bide erdian geratzen dira.

3.3. Euskara: helburu amankomuna nahitaezko ikastaldian.

Irakas sistemaren hezkuntza helburu nagusia nahitaezko ikastaldian oinarritzko heziketa amankomuna bermatzea izanik, bidezkoa dirudi asmo berari eusteak euskarari dagokionez. Irakaskuntzaren Erreformen, ordea, ez da asmo horren konstatazio esplizitorik inondik inora ikusten.

3.4. Eskolako hizkuntza normalkuntza eta gelaz kanpoko plangintza.

Eskolako hizkuntza normalkuntzaren ahalegin gehienak gelan bertan jarri dira, atsedendiko aktibitateak, praktikak, e.a., askotan planifikatu gabe utzi direlarik. Ingurugiroak ikasleen hizkuntzaren gaitasun mailan eta hizkuntza erabileran duen eragina garbi dago. Horrek gela barruan eta gelaz kanpo euskalduntze prozesua dinamizatuko duen hizkuntza politikaren mailako zenbait erabaki eskatzen du.

Horretara eraman behar ditu ikastetxeetan, zuzenki edo zeharka, parte hartzen duten guztiak.

3.5. Irakastereduak eta irakasleen hizkuntza eskakizunak.

Nahiz eta hizkuntza politikaren alorrean irakas sistemak duen arazorik nagusienetako bat, nagusiena ez esateagatik, irakasleen euskalduntzea dela onartu, irakasteredu elebidunen problematika ezin da horretara bakarrik mugatu. Izan ere, sinplifikazio bat da gero eta zabalduago dagoen irudi hau, alegia, irakasteredu elebidunak ezer baino gehiago irakasleen perfilen arabera ere ere ere direla.

3.6. D ereduko irakasleen hizkuntza eskakizuna.

Irakasleen lan eskubideen izenean 1989-90 ikasturterako hartu den erabakiak, D ereduko irakasle guztiak ez bait dira oraintsu arte bezala EGAdunak izango, ez dio hizkuntza normalkuntzari batere onik egingo.

3.7. Irakastereduen arteko igarobidea.

Irakasteredu elebidunak hizkuntza eredu itxi bezala ulertu dira, beren arteko igarobiderik eman ez dutenak.

3.8. Euskaraz ikasteko eskubidea ziurtatu beharra.

Irakas sektore guztien eskaintza kontuan izanda ere, oraindik ez dago ziurtaturik, Euskararen Legeak aitortu bezala, edozein ikaslek edozein ikasketa euskaraz egin dezakeenik. Horrren lekuko gogoratu, besteak beste, Lanbide Heziketan gertatua, erreformarekin batera, moduloak, batxilergoak, e.a. direla eta, areagotu egin daitekeen arazoa. Egoera oraindik larriagoa da sare pribatuko Lanbide Heziketan. Aterabidea hiru hezkuntza sareak kontuan hartuko dituen eskualdekako plangintza koordinatua aurki daiteke.

4. AUTONOMIA ETA PLANGINTZA

4.1. Autonomia eta eskola eredua.

Eskola eredua zehazterakoan oso kontutan hartu beharrekoa da bere autonomia. Zerikusi zuzena du irakas sistemaren lege esparruarekin, ikastetxeen hezkuntza proiektu orokorrarekin, eskolako barne iharduerarekin, titularitate arazoarekin, pertsonalaren gorabeherekin, finantziaketarekin eta abarrekin. Baita hizkuntza politikarekin ere. Hizkuntza normalkuntzaren ikuspegitik, eta horrenbestez gaia agortuko ez delakoan, jasotzen da ondorengo puntuotan autonomiari aitortu beharreko trataera.

4.2. Autonomia eta parte hartzea.

Ezinbestekoa zaio autonomia euskal eskolaren izaera demokratikoari. Autonomia behar du gurasoek seme-alaben heziketaren norabidea proiektu batean finkatu ahal izateko. Autonomia behar dute eskola osatzen dutenek barne ihardueran, elkarren arteko harremanak, arauak eta abar erabakitzeko, autonomia bere izaera eta nortasunaren jabe izango den eskola eraikitzeko.

Nagusiki ikasleak hezitzeko erakundea den arren, eskolak eskolak bertan eskuhartzen duten guztien garapena eragingo duen iharduerari eutsi behar dio. Irakasle, guraso, langile nahiz ikasleak elkar lanean heziko dituen erakundea behar du izan eskolak.

4.3. Hezkuntza proiektu ezberdinak aukeratzeko eskubidea.

Aldiberean, sistema demokratiko batean ikastetxeek hezkuntza proiektu ezberdinak eskaintzen dizkiote gizarteari, eta gizarteak eskubide osoa dauka proiektu horietatik egokien jotzen duena askatasunean aukeratzeko.

4.4. Autonomia eta hezkuntza proiektua.

Eskolaren hezkuntza proiektua da autonomiaren ardatz nagusienetakoa. Gai honetaz hauxe dio Euskararen Aholku Batzordeak: "heziketaren eginkizunari eutsiz egituratuko ditu bere irakas programa, iharduera eta egitura osoa". Hezi beharrak erabakitzeko gaitasuna eskatzen du, ikasleen izaera eta egoerari erantzuteko gai izango den autonomia.

4.5. Autonomia eta ekin ahal izatea.

Gizartearen beharrian aldakorrari malgutasunez erantzungo dion autonomia eskatzen du eskolak. Horrela ikaslearen premiak, hizkuntzei buruzko premiak barne, trataera egokia jaso ahal izango du autonomiaren jabe den neurrian.

Subsidiaritatearen printzipioari eutsi behar dio administrazioak, eskolari ahalik eta ekimen handiena aitortuz. Hizkuntza/hezkuntza helburuak lortzen lagunduko duten antolamendu eredu ezberdinak eskaini behar ditu administrazioak, martxan daudenak ebaluatu eta emaitzak ezagutarazi, irakaslearen prestakuntza (euskarazkoa barne) hobetu, didaktika ikerketak bultzatu, kalitatezko ikasmaterialiak sortzeko bideak indartu e.a.

Guzti hori euskara bezalako hizkuntza gutxiagotu batentzat eskolaz kanpo, bertako gizarte giroan, egiten diren ekintza osagarriek duten garrantzia ahaztu gabe. Azken finean, eskolak gizarteratu egin behar du eta gizarteak eskolaratu.

4.6. Ikastetxea eta eskualdekako plangintza.

Irakas sistemaren eta gizarte osoaren hizkuntza egoera desberdinak kontutan hartu behar dira. Ikastetxearen autonomia eta bialarara egokitutako plangintza oinarri direla bideratuko dira hizkuntza arazoak. Ezinbestekoa da plangintzaren eginkizunak eta eskolako autonomia eskakizunak orekari eutsiz uztartzea.

4.7. Irakasleen hizkuntza trebakuntza.

Ikastetxearen autonomiaz baliatuz, eskola bakoitzak irakasleen trebakuntza eguneratzeko planak egingo ditu. Besteak beste, kontutan hartzekoak izango dira hizkuntzaren gaitasuna lortzeko BIMALE bezalako planak eta baita aurrerantzean euskara hobea erabiltzeko egin daitezkeenak.

Zalantzarik gabe, irakasleko elebiduna dago eskolako hezkuntza eta hizkuntza proiektu autonomoari egokien erantzuteko baldintzetan.

4.8. Autonomia elementu dinamiko gisa.

Autonomiaren apustuak erantzukizunarena eskatzen du, ihardueraren jarraipen egokia eta ebaluazioaren aldeko jarrera. Autonomia eguneroko lanean irabazi behar den apustua da. Ez da egonkorra, ez da finkoa, egunero sortu eta osatu beharrekoa baizik. Ikastetxearen autonomiak berekin izango du tentsioa,

askatasuna eta lotura, egungoa eta gerokoa, nor izatearen arrazoia eta komunikazioaren beharra.

4.9. Autonomia eta irakas sistema osoaren plangintza.

Autonomiak irakas sistema osoaren plangintza barruan behar du kokatu, ikastetxe bakoitzaren eskakizunen indarpean ibili gabe eta interes partikularrak orokorretan uztartuz. Irakas sistemaren plangintza eta ikastetxeen eskakizunen arteko oreka bilatu behar du. Norberaren ahalmek aintzat hartu, baina aldiberean hezkuntza/hizkuntza helburuetan zehaztu diren baldintzak ahaztu gabe; azken batean, helburuak garbi ez daudelako edo onartzen ez direlako sortzen bait dira arazoak.

4.10. Euskal eskolaren legea eta autonomia.

Beraz, euskal eskolaren geroa erabaki dezakeen legeak ikastetxeen autonomia hartu beharko du eraikuntza osoaren zimentarriztat.

5. ETORKIZUNERAKO BIDEAK

5.1. Lehentasunak eta adostasuna legearen testuinguruan.

Diagnostikoa egin ondoren, ezinbestekoa da eskolak aurrerantzean urratu behar duen ibilbidean lehentasunak finkatzea, irakas sistemaren euskalduntzea gidatuko duten oinarritzko erizpideak zehaztea, alegia. Funtsezko aukeraketa hauek hezkuntza komunitatean parte hartzen dutenen adostasunaren eta oneritziaren fruitu izan behar lukete batipat.

Adostasun honek, ordea, hizkuntzaren normalkuntzari buruz euskal gizarteak onarturik dauzkan arau eta legeen baitan kokatua behar du, horrela hizkuntza helburuak bete ditzan.

5.2. Hizkuntza helburuak.

Eskola elebidunak garbi zehaztu behar ditu hizkuntza helburuak. Euskaldunek, euskara maila guztietan lantzeaz gain, goi heziketa gaztelaniaz jarraitu ahal izateko

adinako gaitasuna lortu behar dute.

Etxetik euskaldun ez direnek, berriz, eskolan nahiz kalean euskaraz aritzeko ahalmena lortu behar dute gutxienez. Erdal eskolan gaztelaniari eskatzen zaion oinarrizko maila ziurtatu behar zaio euskaraz ikasleari eskola elebidunean.

Atzerriko hizkuntzek premia berriei erantzungo dien adinbateko lekua izan behar dute ikastetxeko hizkuntzen plangintzan.

5.3. Eskola hezkuntza eta hizkuntza helburuen aurrean.

Eskolak ahaleginak egin behar ditu ikasleen abiapuntu desberdinak gaindituz (adimenezkoak, hizkuntzazkoak, soziokulturalak, e.a.) oinarrizko hezkuntza helburu amankomun batera iristeko. Helburu amankomun horrek, hizkuntzari dagokionez, bi ondorio dakartza, besteak beste: batetik ikasleen hizkuntza gaitasuna, plangintza koordinatua eta eraginkorra dela medio, progresiboki hobetzen joango dela ikasturtez ikasturte, eta bestetik, aukeratzen diren irakastereduak aukeratzen direla (egun indarrean daudenak edo beste batzuk), ikasleek antzeko hizkuntza gaitasunez bukatuko dutela nahitaezko ikastaldia. Azkeneko hau dela eta, argi eta garbi dago euskararen trataera eskolan ezin dela euskara ikasgaiaren esparrura mugatu.

5.4. Euskarazko irakaskuntza hobetu beharra, batez ere A eta B ereduetan.

Orain arteko neurketen arabera (EIFE 1, 2, 3) ez dirudi arazorik dagoenik gaztelaniaz oinarrizko eta ohizko diren gaitasunak lortzeko. Honek ez du esan nahi, jakina, gaztelaniaren irakaskuntzak hobekuntzarik behar ez duenik, nahiz eta hori beste maila batetako arazoa izan.

Euskaraz, aldiz, bai A ereduko ikasgeletan bai B ereduko beste askotan oso emaitza eskasak lortzen dira. Nahikoa argi geratu da, bada, zein ereduetan eta zein kondiziotan betetzen diren adostasunez onarturiko Euskararen Legeak zehazten dituen hizkuntza helburuak, herri honen integrazioarako ezinbestekoak direnak.

D ereduan, eskatutako gutxienezkoa orohar betetzen bada ere, ez da suposatuko behar, ezta gutxiagorik ere, aldaketak eta hobekuntzak egin behar ez direnik. Hiru hizkuntza ereduak dirauten bitartean, beraz, hainbat neurri jarri beharko dira indarrean zenbait hutsune saihestearren.

5.5. Eskola elementu konpensatzailea hizkuntza alorrean.

Eskolak elementu konpensatzailea behar du izan giza desberdintasunen aurrean, baita hizkuntzaren alorrean ere. Hain erdaldunduta dagoen gizartean ikasle askok

eskolan dute bakarrik euskaraz entzun eta hitz egiteko aukera. Egoera honek eskolan lan egiten duten guztien konpromezua eskatzen du, euskararen presentzia ahalik eta handiena izan dadin.

5.6. Eskola autonomia eta hizkuntza helburuak betetzea.

Eskolako lana kasuan kasuko ikasleen berezitasunak aintzakotzat hartuko dituen proiektu pedagogiko autonomoan txertatuta balego, eskuragarriagoa litzateke Euskararen Legeak ezartzen dituen gutxienezko hizkuntza helburuak betetzea. Proiektu pedagogiko autonomo horretan malgutasuna funtsezko ezaugarria denez, irakasle elebiduna legoke hizkuntza egoera desberdinei aurre egiteko baldintza hoberenetan. Hala eta guztiz ere, Hezkuntza Ikuskaritzaren zeregina litzateke ikastetxe guztietan oinarrizko curriculuma beteko dela ziurtatzea.

5.7. Eskola hizkuntza normalkuntza prozesuaren eragile.

Dituen mugak eta guzti, eskola hizkuntza normalkuntza prozesuaren eragile garrantzitsuenetakoa da, agian garrantzitsuena. Eskolak hizkuntza aldatetan duen rolaz iritzi ezberdinak onartuta ere, garbi dago ezinezkoa dela hizkuntza normalizazioa gizarteratzea aurretiaz edo aldeberean eskolara eraman gabe. Zentzu horretan, berriro gogoratu behar da eskolaren bidez ikasle guztiak gutxienezko euskara maila komunikatibo batera iristeak zein garrantzia handia duen gizartearen euskalduntze eta integrazioarako.

5.8. Eskola plangintza eta inguruneakoa.

Irakas sistemaren hizkuntza plangintzak ingurunearen hizkuntza plangintzaren eskutik joan behar du, udal edo auzoetan diharduten erakundeekin batera.

5.9. Batua eta euskalkiak.

Euskararen irakaskuntzak, bestalde, euskara biziaren norma ezberdinen (euskalki eta aldaki biziak) eta idatzirako norma estandarren arteko zubiak arreta osoz zaindu behar ditu, bakoitzari bere lekua aitortuz. Bere hizkeraren istimua landu behar du ikasle euskaldunak. Bertatik abiatuz, eta euskalkiak ahal den neurrian ezagutuz, euskara batua manderatzera iritsi behar du.

5.10. Emaitzen ebaluazioa euskaraz eta gaztelaniaz.

Lorpenak hobetzeko lehenago neurtu egin behar dira. Horretarako, beste herritan eta gurean ere egin den antzera, ebaluatu behar lirateke nahitaezko ikastaldiko ikasturtetan ematen diren emaitzak, bai euskaraz bai gaztelaniaz. Ebaluazio horrek hutsuneak ezetik lorpenak ere aztertu eta ezagutarazi behar lituzke hezkuntza osoaren mesederako.

5.11. Irakaskuntza elebiduna prestigiatu beharra.

Administrazioak, ekimen sozialarekin batera, ahalegin handiagoa egin behar luke irakaskuntza elebiduna prestigiatzeko. Zenbait baldintza betez gero, elebitasunak ikasleen heziketari dakartzkion ondorio positiboak hobeto ezagutarazi behar lituzke, irakaskuntza elebidunaren giza onarpena gehiago zabalduz. Izan ere, ez dirudi kontzientzi lan hau amaitutzat jo daitekeenik, ez eta irakaskuntza elebidunari betidanik egotzi zaizkion hezkuntza arazoak hainbat sektore sozialentzat gaindituta daudenik.

5.12. Irakasleen euskalduntzearen arazoa.

Eskola euskalduntzeko zutaberik trinkoena irakasleak ditugu. Irakasleak euskalduntzeko, kontratu berriak eta IRALE programa izan dira orain arte hautatutako bideak. Irakasleen jaitsiera demografikoa dela eta, kontratazio berriaren ekarria urritu egingo da. IRALE geldituko da iturri nagusi. Baina IRALEk muga kuantitatiboak eta kualitatiboak ditu (irakasleen liberazio kopuruari eta hizkuntza mailari dagozkienak) irakasleen hizkuntza trebakuntzaren zereginean. Gauzak horrela, agian garaia iritsi da, dagoenari uko egin gabe, irakas sistemaren irakasleak euskalduntzeko irtenbide berriak planteiatzeko. Irtenbide berriek irakasle kopuruaren problematikari ezetik, euskal irakasleen hizkuntza kalitatearen arazoari ere aurre egin behar diote.

5.13. Euskararen aldeko proiektuak lagundu eta babesteko beharra.

Euskararen normalkuntza irakaskuntzan lortzeko apustua egiten duen eskolari hori lortzeko beharrezkoak dituen laguntza eta babesa eman behar zaizkio, giza, material eta diru baliabideak eskainiz.

5.14. Argitarapen politika.

Ido honetatik, orain arte baino askoz ere gehiago zaindu behar litzateke argitalpen politika, merkatuaren lege soilean utziz gero, ikas material gehienak euskal kultur erreferentziarik gabeko itzulpen hutsak izan bait daitezke. Aitzitik, lehenago esan bezala, euskarak eta euskal kulturak behar lukete izan eskolako programazio osoaren ardatz nagusienetakoa.

5.15. Irakaskuntza pribatua.

Irakaskuntza pribatua, irakas sistemaren hain sektore garrantzitsu izanik, ezin da bere kasa utzi, administrazioaren aldetik laguntzarik eta beharrezko den hizkuntza edota gainerako eskakizunen kontrolik ziurtatu gabe.

Aldi berean ere, hezkuntza sare bakoitzak ezin du, zein bere aldetik, 16 urtetik gorako irakaskuntzarako gizarte eskaera guztia ziurtatu, are gutxiago ezinbesteko bihurtu den gaur eguneko espezializazio beharrekin.

5.16. Unibertsitatea eta ikerketarako erakundeak.

Hizkuntza normalkuntzak hala eskatuta, hizkuntza irakaskuntzak lehentasunezko arloa behar du izan unibertsitatean eta bestelako ikerketarako erakundeetan, giza zientzien esparru honetan Euskal Herriak dituen behar eta aukera potentzialak ikusirik, egun baino emaitza hobek eskuratzeko.

6. GOMENDIOAK

Txosten honetan esanak kontutan hartuz, Euskararen Aholku Batzordeak honako gomendio hauek ematen ditu:

6.1.-Euskararen Legeak ezarritako helburuak kontutan hartu behar ditu eskolak eta irakas sistema osoak.

6.2.-Hizkuntzaren arabera antolatutako ereduak malguak, irekiak, igarobidez osoatuak egongo dira, beti ere ikaslearen

zerbitzuan. Abiapuntu desberdinetan oinarrituta, helmuga amankomun batetara iristeko baino ez lukete izan behar. Izan ere, A ereduari hasi diren ikasleek joan behar lukete B-rantza hurbilduz eta B ereduari hasi direnek D-rantza jo behar lukete pixkanaka-pixkanaka..

6.3.-Aipatutako helmugara iristeko eskolaren autonomia da giltzarria. Autonomia eta erantzunkizuna oinarri dituela, eraikitako eskolak erantzun berezia eskatzen die berari osatzen duten irakasle klustroari, gurasoei, ikasleei eta administrazioei. Azken finean, ikastetxe bakoitzeko hezkuntza egitasmoan txertatu behar da hezkuntza politikari dagokion egitasmoa.

6.4.-Euskararen irakaskuntzatik erabilerara pausoa emanaz lortuko da eskoletako hezkuntzaren normalkuntza. Horretarako trataera interdisziplinarra eman behar zaio euskarari eskolan, eta ez jakintzagai batetara mugatuta. Ez hori bakarrik, ikastegien arlo, sail edo mintegien programazioek, arlo akademiko hutsa gainditurik, erabilpenarako proposatzen diren ekintzak eta metodologia ere taiutu behar litzukete. Eskolak hezkuntzaren erabilerari buruzko plangintza zehaztu behar du nola irakaskuntzan hala gainontzeko harremanetan.

6.5.-Autonomia pedagogikoa ezin daiteke inola ere gizarteak eskatzen duena ez betetzeko aitzakia izan. Derrigorrezkoa da ikastegiei gutxienezko baliabide berdinak edukitzea. Hezkuntzari dagokionez, edozein hezkuntza programa aurrera eramateko gai den irakaslego elebiduna litzateke abiapuntu egokiena. Beraz, zenbait erabaki administratibo (B ereduaren irakasketak emateko, euskarazko titulazioa behar duten irakasleen kopurua arautzen duen 86ko agindua, kasu) bertan behera uztea pentsatu behar da.

6.6.-Eskolak aldiro egiten duen ohizko ebaluazioan aintzat hartuko da euskararen egitasmoaren inguruan egindako ebaluazioa. Horren ondoren, bidezkoak diren erabakiak hartuko ditu eskolak.

6.7.-Nahitaezko ikastaldiaren buruan hizkuntza gaitasunaren ebaluaketa standarra egin behar luke hezkuntza administrazioak, gutxienezko hizkuntza helburuak betetzen diren egiaztatzeko. Ebaluaketa honek egitasmoaren hizkuntza helburuak, gaitasuna, erabilera eta kalitatea hartuko lituzke aintzat.

6.8.-Nahitaezko ikastaldiaren antolaketa berrian, B eta D irakastereduetako euskarazko irakaskuntzaren jarraipena ziurtatu behar da.

6.9.-Jatorrizko euskaldunen hizkuntza kalitatea ziurtatu egin behar da eta bertako euskalkiei tratamendu egokia eman.

6.10.-Hizkuntza kalitatearen arazoari aurre egiteko irakasleen prestakuntzarako plana diseinatu behar da. Plan honek bi alderdi jorratuko lituzke: irakasleen euskara maila eta hizkuntza didaktika.

6.11.-Administrazioak irakaskuntza elebiduna prestigiatzeko inizatiba hartu behar du, barreiatu dauden ekimenak bildu, koordinatu eta bideratu.

6.12.-Euskal eskolak ezinbestean ekarriko dituen material didaktikoen premiei Administrazioak erantzun behar die, bertan eta bertotik argitaraturiko kalitatezko ikas materiala ziurtatuz.

6.13.-Ikastetxe pribatuak ere euskalduntze egitasmoan txertatu behar du. Oraingo hiru sareak kontutan hartuko dituen eskualdekako plangintza burutu behar da, hezkuntza elebiduna goi mailetaraino ziurtaturik egon dadin.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA

SECRETARÍA DE LA PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA